

1996ko URTARRILAREN 2ko BILKURA BEREZIA

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeitamaseiko urtarrilaren bian, gaueko bederatzia direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Inaxio Olaetxea Karrera, Ima Zubeldia Luloaga eta Julian Zubeldia Aierbe; Ramon Bengoetxea Altuna, Manuel Barriola Tolosa eta Jose Arzadun Egiluz Zinegotziak ez dira agertu, nahiz eta jakinean egon, eta ez dute inolako arrazoirik eman; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Berezian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

SENIDEAK ELKARTEAREN MOZIOA

Politika penitentziarioak, eta bereziki oraingo sakaba-naketak, giltzapean dauden pertsonen eta beraien senitar-tekoen oinarrizko eskubideak bortxatzen dituzten edonolako jokaera bortitz eta irregularrak gerta daitezzen ahaltzen du.

Bere burua zuzenbidezkotzat hartzen duen Estatu honetan aipatutako politikaren garapenak onartezinezko neurrigabeko kostea sortarazten du. Gutxienezko bizibaldintzarik gabe, urrun isolamenduan, irain eta tratu txarrak jasaten, intimi-taterik gabe, hau da, oinarrizko giza eskubiderik gabe ditugu ehundaka gizon eta emakume. Baita beraien familiarrak ere.

Egoera latz honek, bidai luze, penagarri eta arrisku-tsuak egitera behartzen gaitu ingurukoak gure familiarrekin minutu eskas batzutako bixitak egin ahal izateko. Are gehiago familiarroi ezarri zaigun zigor honek hainbat bizitza eraman ditu jada (Pilar Arsuaga, Alfonso Isasi, Rosa Amezaga, Aran-txa Amezaga eta Matilde Arribillaga), beste hainbat larriki zauritu (TOLOSALDEA bertan baditugu zenbait adibide) eta orokorki denei izugarritzko kalteak suposatzen dizkigu.

Nahita eragindako ezbehar honek mina eta haserrea gehitzea besterik ez dakar, inongo irtenbiderik eman gabe. Baina konpontzerik badago, neurri haundi batean, euskal presoak bere familiarren albora, hau da, Euskal Herrira, ekarriak izango balira, legeak diotenari jarraituz. Urteak dira familiarrok eskubide hau

eskatzen ari garela. Sententziak askatasun gabe egotera behartzen ditu, baina bitartean oinarrizko giza eskubideen subjeto izaten jarraitu beharko lukete.

Espetxeetan bizi den egoeraren aurrean, politika penitentiarioak, dispertsioak nola legeen aplikazio ezak, sorta-razten dituen ondorioz kezkatutik, LIZARTZAko Udalaren Osoko Bilkurari zera eskatzen diogu:

- 1.- Preso eta beraien senideen oinarrizko eskubideen baldin-tzarik gabeko errespetoa.
- 2.- LIZARTZAko Udalak berea egin dezan preso eta beren fami-liarrek egindako eskera: Euskal preso politikoak Euskal Herrira ekartzea, Erregelamendu Penitentiarioaren 8. artikuluan eta Lege Penitentiario Orokorreko 12. artikuluan agindu bezala). Honela, TOLOSALDEKO bizilagunak diran: Juan Manuel Arzallus Egiguren, Jose Inazio Goikoe-txea Arandia, Jose Migel Arbelegi Goenaga, Jose Luis Lorenzo Gonzalo, Esteban Esteban Nieto, Edorta Agirre Mauleon, Simoni Odriozola Agirre, Peio Odriozola Agirre, Jon Aizpurua Arreseigor, Jose Luis Elustondo Oiarzabal, Anjel Rekalde Goikoetxea, Gregorio Jimenez Morales, Joseba Uranga Gastesi eta Jose Inazio Iruretagoiena Lanzen sententzia euren jaiolekuan betetzea eskatzen dugu.
- 3.- LIZARTZAko Udalak Lege Penitentiario Orokorren 72. artikulua, Erregelamendu Penitentiarioaren 58. eta ondo-rengo artikulak eta Kode Penalaren 98. artikulak betetzen dituzten preso guztien Baldintzapeko Askatasu-naren aplikazioa berehala eta txantiarik gabe eska dezala.
- 4.- Aurreko atalean esandakoaren arabera kartzela zigorraren 3/4ak bete dituzten TOLOSALDEko Joseba Uranga Gastesi, Jose Luis Lorenzo Gonzalo, Imanol Arzallus Egiguren eta Goio Jimenez Moralesi Baldintzapeko Askatasuna eskatzea.
- 5.- LIZARTZAko Udalaren Osoko Bilkurak hartutako erabakiak Gasteizko Legebiltzarraren Giza Eskubideen Batzordera, komunikabideetara eta

familiarrengana bidal ditzan, eta aipatutako batzorde horri, akordioak bete daitezela eska dezaion.

6.- LIZARTZAko Udalak goian aipatutako akordioak burutu daitezen konpromezua har dezala.

Senideak Elkarreak -Euskal Preso, Errefuxiatu eta Deportatu Politikoen Familiarren Elkarreak- auzkeztutako mozioa, aho batez onartu da.

BAZTERKETA SOZIAL ETA LANGABEZIAREN AURKAKO MOBILIZAZIOARI BURUZKO MOZIOA

Errekurtsorik gabeko pertsonen iniziatiba, talde eta kolektibo ezberdinek, eta sozialki baztertutako hauekiko solidario garen zenbait pertsonak, BAZTERKETA SOZIAL ETA LANGABEZIAREN AURKAKO mobilizazio zabal bat garatzeko erabakia hartu dugu. Azaroaren 23tik aurrera garatzea espero ditugun ekintza desberdinen artean, BAZTERKETA SOZIAL ETA LANGABEZIAREN AURKAKO MARTXAK daude; martxa hauetan, bitzta duin bat izateko oinarrizko errekurtsioak falta zaizkigun ehundaka pertsonak hartuko dugu parte.

Honela jokatuko dugunok, LANGABEZIA GIZARTEAREN PORROTA DELA USTE DUGU, ETA BERAZ, GIZARTE OSOAREN ARDURA DA HAINBAT PERTSONEN SUFRIKARIOA EKARRI DUEN EGOERARI IRTENBIDEA EMATEA. Horregatik, nahitaezkoa iruditzen zaigu, bai instituzio publikoei (batipat hauei) eta baita pribatuei ere, gure mobilizazioetan parte hartu dezaten eskatzea eta aldi berean, guk, langabezian eta sozialki bazterturik egoteagatik falta zaizkigun laguntzak ematea. Guzti horregatik:

UDAL BATZAR OROKORRARI ETA UDALETXEKO TALDE POLITIKO GUZTIEI ESKATZEN DIEGU: HONAKO HAU IZAN DAITEKEEN MOZIOA, HURRENGO UDAL PLENOAN AURKEZTEA:

- 1.- 1.995eko Abenduaren 1ean hasi eta Abenduaren 11an Madrilen bukatuko den Bazterketa Sozial eta Langabeziaren aurkako martxari, gure babesa ematea.
- 2.- Martxan parte hartuko dutenen itzulerako bidaia ordain-tzeko, eta beharrezko errekursoen ordainketarako (erropa egokia, botak, ibilgailuen alokairua e.a.) 50.000 pezta-tako dirulaguntza ematea.

Bazterketa Sozial eta Langabeziaren Aurkako Martxa dela eta, Langabetuen Batzarrak aurkeztutako mozioa aztertu eta eztabaidatuz gero, Udalaren babesa eta 5.000,- peztatako dirulaguntza ematea, aho batez onartu da.

EUSKAL UDAL INTSUMITUEN MANKOMUNITATEA (EUDIMA)

Behean izenpetzen dugun Euskal Herriko Udalak, dagozki-gun Udalerrietako herritarren ordezkari garen neurrian haien interesak babesteko nahia eta betebeharra dugulakoan, publi-koki adierazten dugu bat egiten dugula Ejerzitoan Soldaduzka betetzeari uko egiteko edozein herritarrek duen eskubidearekin, honen ondorioz Udal Intsumituak garela aldarrikatuz.

Intsumisioa, gizabanako bakoitzaren eskubidea izan ezezik eskubide kolektibo ere bihurtzen da herritarren artean onesperen zabala eta babes garrantzitsua badu, gaur egun Euskal Herri osoan gertatzen den bezala.

Hala ere espaniar estatuaren erabaki-gune militar eta politikoetan, euskal intsumituen borondatea onartu eta erres-petatu beharrean, ukazioaren eta errepresioaren bidea jorratzen da bai intsumituen aurka baita beraien senide, lagun nahiz elkertasuna adierazten dieten alkate edo zinegotzien aurka, horrela insumisioaren espetxeratze, sakabanaketa, inhabilitazioa eta jazarpena burutzen delarik.

Horregatik bertan sinatzen dugun Udalo, euskal herritarrek dituzten premiazko beharrak ezagutuak eta hauetako askoren konponbidea -baliabide ekonomiko eskasak direla medio- bertako erakundeen esku ez dagoela jakinik,

gutziz aldrebesa eta alferrikakoa iruditzen zaigu jokabide hierar-kiko, matxista, inposatzaile eta zigortzailetan oinarritutako erakunde baten mantentzea; are gehiago Euskal Herriak "Kupo"-ari urtero ordaindu behar dizkion dirutza handi bat militar gastuetarako bideratzen bada.

Beraz, behean sinatzen dugun Udalek, intsumisioaren bidea aukeratu duen euskal gaztediaren zati handi baten kon-promezua geureganatuz eta Euskal Herriko hainbat taldek eta senitartekoek egindako lanak txalotzen dugun bitartean, elkarrekin intsumisioaren bidez uztartzen diren helburuak babesteko, bultzatzeko eta zabaltzeko konpromezua hartzen dugu, herritarren eskubide bakarkako eta kolektiboak gordetzen dituen eskubide demokratikoaren alde eta gizar-tearen berdintasunerantz eta desmilitarizaziorantz aurrera pausoak emateko lan eginez.

Herri desmilitarizatu baten alde apostu egiten dugun udalak izaki, ez dugu filosofia honen aurka doan ekintzarik edo funtziorik onartuko, esate baterako kintoen sekzioak, militar maniobrak etab... Era berean, Kode Penal berriaren onespeneren atarian gaudela, intsumisioa zigortzen jarrai dezaken inolako gaztigurik -ez penal, ez administratibo- betearazten ez dugu langunduko.

Horretarako, behean izenpetzen dugunok, intsumisioaren alde aritzeagatik jazarriak, behartuak ala zigortuak izan daitezkeen herritarrak edo korporazioak politikoki, sozialki edo juridikoki babesteko gure esku dauden baliabide guztiak erabiltzeko konpromezua hartzen dugu.

Guzti hau dela eta gazteengan, kargu publikoengan eta orohar herritar oroengan eragiten duten babesgabeko egoerak ikusirik, behean sinatzen dugun udalek beharrezko deritzogu Udalerri desberdinetan indar eta ekimen guztiak elkartzeari.

Hori lortzearen, Euskal Udal Intsumituen Mankomunitatea-Mancomunidad de Ayuntamientos Vasco Insumisos (EUDIMA) eratzea erabaki dugu.

Idazkariak hitza harturik dio: Proposamen hori onartuko balitz, Legeek agintzen dutenaren aurka joango dela Udala. Horrenbestez, ilegala izango litzakela.

Idazkariak eginiko ilegaltasun jakinerazpena entzun ondoren, bildutako zinegotziek zera adierazten dute:

Benetan ilegala eta legitimitaterik gabeko gauza dela Espainiako Ejertzitoak eta bere Agintari Politikoak, indarrez eta arma bidez, Euskal Herria zanpatzea.

Horrenbestez, Lizartzako Udala Intsumitua dela aldarri-katzea eta Euskal Udal Intsumituen Mankomunitatearen eratzean parte hartzea, aho batez onartu da.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko hamarrak direnean.